

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



IENA GAIZTOA

Batzutan uste izaten dogu norberekeria dala nagusi gure artean, urrengo alegi onek irakatsiko dausku zelan amaitzen dan, elburuak lortzeko iruzurra bide lez artzen dauanaren barrua betetu-eziña.

Gizon bik, Ali'k eta Mustafa'k, basamortua igaro bear eben leoiagaz, zugeagaz, ieneagaz eta txakalagaz batera. Janariak arin amaitu jakezan eta sei bidelariak pozik ikusi ebezan euren buruak basamortuko onune edo oasis batera eldu eta an ganbelu bat aurkitu ebenean.

Ganbelua palma-ondo bateri lotu eutsoen. Ain bide luzeak aspertuta, lo egin eben, urrengo egunean ganbelua ilteko eta errari on bat egiteko berbea emonda.

Euren artean gaiztoena eta norberekoiena zan ienea geratu zan itzarrik eta ganbelua beretzat bakarrik izan zedin deabrukeria zan asmakizuna artu eban. Leoia itzartu eta belarrira esan eutson:

—Kontuz ibilli, txakalak ganbelua ostu eta iges egiteko asmoa dau-ta.

—Ori be bai? —orroa egin eban leoiak— Neuk konponduko dot ori.

Urreratu zan lo egoan txakalagana, erpakaz erail eta berriro lo egin eban.

—Bat garbitu dogu —esan eban egindakoagaz poztuta ieneak.

Gero zugeagana urreratu zan, itxartu eban eta erdi-isillean esan eutson:

—Ikusi diozu leoiak zer egin dauan? Txakala erail dau eta guztioi orixe egiteko asmoa dauko, gero berak ganbelua bakarrik jateko.

—Ori be bai! —esan eban zugeak— Oraintxe emongo dautsat emon bear jakona.

Zugea urreratu zan leoiagana eta pozoidun agiñakaz uzika egin eutson eta leoia il egin zan. Gero zugeak lo egin eban barriro.

—Au bigarrena! —esan eban ieneak bere oiñak iguziaz eta bere erara ulu egiñaz.

Gero Ali´gana urreratu zan eta belarrira esan eutson:

—Itxartu zaitez!, Ali. Ikusi dot zugeak erail dauzala leoia, eta txakala. Geldi izten ba´dautsagu, geu be ilgo gaitu berak bakarrik ganbelua jateko.

—Ori be bai? —esan eban Ali´k.— Au bat-batean konponduko dot nik.

Urreratu zan kontuz zugeagana eta arri bategaz burua zapaldu eutson. Eta barriro etxun zan lo.

—Iru diral! —pentsau eban ieneak poz-pozik

Geroago Ali odolez loitu eban eta Mustafa itxartzera joan zan, au zurrunka lo egoan eta esan eutson abots aundi barik:

—Jagi zaite, Mustafa! Ali´k leoia, txakala eta zugea erail dauz eta geu be erailtea nai dau ganbelua beretzat izan daiten.

—Ziur zagoz? —esan eban Mustafa´k.

—Bai orixe! —erantzun eban iena gaiztoak.

Orduan Mustafa´k bere laguna itxartu eban sendo eraginda eta aldarrika esanez:

—Ea, lagun, lo egiten dozu ala orren antza emon? Egia da leoia, txakala eta zugea erail dozuzala? Zuritu egizu zeure burua al ba´dozu. Ostantxean gertatu zaite zeure gaiztakeriak zeure eriotzeagaz ordaintzeko.

Ali ikaratuta itxartu zan eta ez eban ezer ulertzen. Berbarik ezin egin al izan eban bere burua zuritzeko, edozein erailtzailerri jazoko leikion gauzea, eralten arrapatua izan ezkerro.

Mustafa´k Ali odolez zikinduta ikusi ebanean, ez eban euki zalantzarik: Bera lo egoala leoia, txakala ta zugea erail ebazala. Atera eban aiztoa bere lagunaren gainera jauzi egin eban eta zuzentasuna beingo batenbeteko.

Baiña une aretan abots bat entzun zan auxe iñoana:

—Geldi or! Ez da bera eraltzaillea!

Norena zan abotsa? Ganbeluarena. Au palma-ondoari lotuta egoan eta dana ikusi eban eta azaldu al izan eutsen gizonai zelan ieneak bultzatu ebazan iruzur orretara leoia txakala erailteko, zugea leoia erailteko eta Ali zugea erailteko. Eta zelan Ali odolez zikindu eban eta au be Mustafa´k erailtea nai eban. Ganbeluak berbak amaitu ebazanerako, ieneak iges egin eban.

Ali´k eta Mustafa´k eskerrak emon eutsoezan ganbeluari euren biziak salbau ebazalako. Askatu egin eben ba eta esan eutsoen:

—Aske zagoz! —Gero zizpuruz esan eben:

Guk orain barau egin-bearra daukagu, urrengo oasis edo onunea aurkitu-arte.

—Ez estutu —esan eban ganbeluak— Itxaron eta ikusiko dozue.

Eguna argitu ebanean onune edo oasis'eko gogoak bizi ziran gaztelura eroan ebazan.

—Emen dana aurkituko dozue —esan eutsen— Jan eta edan, baiña joan emendik illentzera-orduko. Oasis'eko gogoak etorri eta etxean aurkitu ez zagiezan.

Alik ta Mustafa'k barriro eskerrak emon eutsoezan ganbeluari, sartu ziran gaztelura eta naikoa jan eta edan eben eta asetuta apur bat alai urten eben.

Ieneak urriñetik jarraitu eutsen eta bera be gaztelura joatea erabagi eban. Sartu eta jan eta jan egin eban naikotu arte. Illuntzea eldu eta eguzkia sartu zanean, oasis edo onuneko gogoak etorri ziran gaztelura eta an aurkitu eben iena baragarria afaria jan eta jan. Erail egin eban “on egin” be esan bagerik. Orduan ikasi eben: “Sarritan egia emendik billatzen da eta aldik agertu”.

† OLAZAR'tar Martin'ek